# GORABIDE

Nº 252 Zk.
SEPTIEMBRE DE 2016
2016KO IRAILA

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA



INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

**Cuestiones de interés** / **Gai interresgarriak** pg. 4 or.



**Tres talleres en octubre** / **Hiru tailer urrian** pg. 6 or.



**Encuentros de autogestores** / **Autogestoreen topaketak** pg. 7 or.





# PROGRAMA GORATU 2.0

## Aprendiendo *online* con personas con *dis*capacidad

# GORATU PROGRAMA 2.0

## (des)gaitasuna duten pertsonekin *online* ikasten



## Abordamos un estudio sobre mujer y discapacidad, con la Universidad de Deusto

(pg. 5)

## Emakume eta desgaitasunari buruzko azterketa bat egiten ari gara Deustuko Unibertsitatearekin

(5. or.)


GORABIDE

**ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL**

c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com

www.gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide



Colabora
Laguntzen du
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Gure Goratu Programa ikusgarriago egin da interneten

## *Ikus-entzunezko material batzuek lehen pertsonan "liburuetan ez dagoena eta adimen desgaitasuna ez duen inork kontatu ezin duena" azaltzen dute*

***"Adimen desgaitasuna duten pertsonak gara eta adimen desgaitasuna duten pertsonei buruz hitz egiten ari gara. Horrela joan gara Goratu Programa eraikitzen".*** **Hitz horiekin hasten dute *online* aurkezpena programa osatzen duten bederatzi pertsonek. Gorabide, programa horren bidez, lortzen ari da haien zerbitzuen erabiltzaileek euren errealitatea ezagutzera ematea.**


Edukiak adimen desgaitasunen bat duten pertsonek sortu dituzte

IRAKURKETA ERRAZA

Goratu Programak beste pertsona batzuei laguntzen die adimen desgaitasuna zer den ulertzen. Adimen desgaitasuna duten pertsonek bi urte daramate azaltzen zein den haien errealitatea ikastetxeetan, osasun zentroetan, unibertsitateetan eta beste erakunde batzuetan. Orain, Interneten bidez ere ezagutu daiteke:
www.gorabide.com/programa-goratu

Urte bitan aritu dira saioak ematen hezkuntza zentro, unibertsitate, enpresa, osasun zentro eta beste erakunde batzuetan, ezagutzera emateko, aurrez aurre, adimen desgaitasuna duten pertsonen esperientziak, beharrak eta helburuak. Orain gure Goratu Programak saltoa egin du mundu birtualera eta bere atala du elkarteko web orrian: www. gorabide. com/programa-goratu. Espazio horretan, adimen desgaitasunari buruzko informazio gehiago nahi dutenek programa osatzen duten pertsonen hitzetan jaso dezakete: Ramón, Xabi, Conchi, Fede, Patxi, Juantxu, Charo eta Bego.

### Bizipenak eta materialak

La Caixa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin, Goratu Programak lau atal konfiguratu ditu saio presentzialetan eskaintzen diren eduki berberak emateko. Horrela, bertako kideek adierazi egin ditzakete haien bizipenak, iritziak, kezkak eta itxaropenak, bizi kalitatearen dimentsioarekin lotutakoak (ongizate emozional, fisiko eta materiala, pertsonen arteko harremanak, garapen pertsonala, autodeterminazioa, gizarte-inklusioa eta eskubideak). Horretaz gain, haien eta beste batzuen material interesgarriak ere eskaintzen dituzte. Gainera, webean taldeko kide bakoitzaren aurkezpena ere badago, Goratu Programa nola egiten den ezagutzeko atala, eta lortutako emaitzen berri emateko atala ere bai. Nahi izanez gero, saio presentziala ere eska liteke.

### Kontatzeko gauza asko

*"Entzuiguzu, gauza garrantzitsuak ditugu kontatzeko-eta: adimen desgaitasunari buruzko gauzak kontatu nahi ditugu, liburu eta eskuliburuetan ez daudenak"* esaten dute web orrian. Izan ere, haien ustez, Goratu Programak *"gizartean ezagunago egiten laguntzen du"*, eta helburu argia dute: *"Gizarte inklusiboagoa egiten lagundu nahi dugu, baina modu aktiboan, geure ahotsarekin. Esan nahi dugu aukerak behar ditugula gure bizitza gero eta gureago eta kalitate handiagokoa izan dadin".* Horretarako, tresna indartsuak erabiltzen dituzte: *"kezkatzen gaituena, motibatzen gaituena, hazten laguntzen diguna…".*

# Nuestro Programa Goratu se hace más visible en internet

## *Varios materiales audiovisuales explican en primera persona "lo que no está en los libros y nadie que no tenga discapacidad intelectual puede contar"*


Los contenidos han sido realizados por personas con discapacidad intelectual

***"Somos personas con discapacidad intelectual hablando sobre personas con discapacidad intelectual. Así hemos ido construyendo el Programa Goratu".*** **Con esa frase, inician su presentación *online* las nueve personas que forman el programa con el que Gorabide está logrando que el colectivo destinatario de sus servicios pueda dar a conocer sus realidades.**

LECTURA FÁCIL

El Programa Goratu ayuda a otras personas a conocer qué es la discapacidad intelectual. Las propias personas que tienen discapacidad intelectual llevan dos años explicando su realidad en colegios, centros de salud, universidades y otras entidades. Ahora, se puede conocer también por internet: www.gorabide.com/programa-goratu

Tras dos años impartiendo sesiones en centros educativos, universidades, empresas, centros de salud y otras entidades, para dar a conocer las experiencias, necesidades y metas de las personas con discapacidad intelectual en primera persona, nuestro Programa Goratu da el salto al mundo virtual con un apartado propio en la web de la asociación: www.gorabide.com/programagoratu. En ese espacio, quienes tengan interés en conocer más sobre la discapacidad intelectual, pueden hacerlo a través de las voces de las personas que componen el programa: Ramón, Xabi, Conchi, Fede, Patxi, Juantxu, Charo y Bego.

### Vivencias y materiales

Con el apoyo de Obra Social la Caixa, el equipo del Programa Goratu ha configurado cuatro secciones que replican los contenidos que se ofrecen en las sesiones presenciales. Así, sus integrantes expresan sus vivencias, opiniones, preocupaciones, y expectativas asociadas a las dimensiones de calidad de vida (bienestar emocional, físico y material, relaciones interpersonales, desarrollo personal, autodeterminación, inclusión social y derechos). Igualmente, ofrecen materiales complementarios propios y otros materiales de interés. Además, la web incluye una presentación de cada miembro del grupo, un apartado en el que se puede conocer cómo se hace el Programa Goratu, y una zona en la que se explican los logros conseguidos. Así mismo, es posible solicitar una sesión presencial.

### Muchas cosas que contar

*"Escúchanos porque tenemos muchas cosas importantes que contar: queremos explicar lo que no está en los libros ni en los manuales sobre la discapacidad intelectual"* es otro de los mensajes que lanzan desde la web. Porque consideran que el Programa Goratu *"contribuye a que la sociedad nos conozca mejor"*, con un objetivo claro: *"Queremos ayudar a que la sociedad sea más inclusiva; y queremos hacerlo activamente, con nuestra propia voz. Queremos decir que necesitamos oportunidades para que nuestra vida sea cada vez más nuestra y de mayor calidad"*. Para ello, se valen de herramientas poderosas: "*lo que nos preocupa, lo que nos motiva, lo que nos ayuda a crecer...*".

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

## Unidades Residenciales Socio-Sanitarias

Las Unidades Residenciales Socio-Sanitarias son plazas residenciales de carácter temporal (máx. 6 meses) para prestar asistencia socio-sanitaria a personas enfermas con necesidades sociales. Que tengan más de 18 años, nacionalidad española y estén empadronadas en Bizkaia. Personas con necesidades de cuidados sanitarios no complejos (que podrían realizarse en el domicilio y no precisen hospitalización), pero cuya situación sociofamiliar no permita asegurar su correcta aplicación y supervisión en su domicilio. La necesidad de cuidados sanitarios en un centro socio-sanitario será siempre una indicación médica avalada por el informe médico correspondiente, y situación social avalada por el correspondiente informe social. Las solicitudes se entregan en el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

## BetiON, Servicio Público de Teleasistencia

La teleasistencia domiciliaria es un servicio que permite la permanencia de las personas usuarias en su medio habitual de vida. En caso de riesgo para su seguridad o salud, un sencillo dispositivo instalado en un medallón las mantiene permanentemente conectadas a un centro de atención inmediata atendida por personal especializado. Este servicio permite realizar consultas que pueden ser resueltas a distancia o derivadas a otros recursos (SOS Deiak, unidad móvil de BetiON, cita previa con el ambulatorio, contacto con familiares…). El servicio está diseñado para personas mayores de 75 años que vivan solas; para personas mayores de 65 años en situación de dependencia reconocida; para personas con discapacidad intelectual, física o sensorial en situación de dependencia y para personas con enfermedad mental dependientes. La solicitud se tramita en el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco y/o Servicios Sociales de Base Municipales.

## Egoitza Unitate Sozio-Sanitarioak

Egoitza Unitate Sozio-Sanitarioak aldi baterako egoitza-plazak dira (gehienez ere, 6 hilabete), premia sozialak dituzten gaixoei laguntza sozio-sanitarioa emateko. Beharrezkoa da 18 urte beteta edukitzea eta Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea. Zailtasun txikiko zainketa sanitarioak behar dituzten pertsonentzat da (zainketa horiek etxean egin litezke, ospitaleratu gabe), baldin eta haien gizarte- edo familia-egoera dela-eta ezin bada ikuskatu eta bermatu zainketa horiek beren etxeetan behar bezala egiten direla. Zainketa sanitarioak zentro sozio-sanitario batean emateko agindu mediko bat behar da; horretarako, beharrezkoa izango da, betiere, dagokion txosten medikoa ematea. Eskaerak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean aurkeztu behar dira.

## BetiON, Telelaguntza Zerbitzu Publikoa

Etxez etxeko telelaguntza zerbitzuak aukera ematen die erabiltzaileei ohiko bizilekuan egoteko. Segurtasun edo osasun arriskurik egonez gero, erabiltzaileek segituan jasotzen dute laguntza, eskumuturrean edo medailoi batean jarritako gailu bati esker etengabe konektatuta baitaude adituek kudeatutako arreta zentro batekin. Zerbitzu horri esker kontsultak egin litezke edo beste baliabide batzuetara deribatu (SOS Deiak, BetiON unitate mugikorra, anbulatorioko aurretiko zita, familiakoekin harremanetan jarri…). Zerbitzua bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonentzat da; gizarte-zerbitzuek hala onartuta, beste norbaiten mende bizi diren 65etik gorakoentzat; adimen desgaitasun fisikoa edo sentsoriala izanik mendekotasuna dutenentzat eta gaixotasun mentala izanik mendekotasuna dutenentzat. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Zerbitzuetako Sailean edota Udaleko Oinarrizko Zerbitzu Sozialen bidez tramitatzen dira eskaerak.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**

**Tel. 94 453 90 86**

# Estudio con la Universidad de Deusto sobre mujer y discapacidad intelectual

***Un acuerdo de colaboración entre Gorabide y la Facultad de Psicología y Educación pretende utilizar el empoderamiento como estrategia de participación social***

Gorabide y la Facultad de Psicología y Educación de la Universidad de Deusto estamos realizando una investigación sobre mujer y discapacidad intelectual, basada en el empoderamiento como estrategia de intervención social. Con una duración estimada de cuatro años, el proyecto busca conocer las situaciones que vive este colectivo, identificar qué aspectos favorecen o dificultan su inclusión social, y llevar a cabo un proceso de capacitación que favorezca su empoderamiento personal y su participación social.




Tras realizar 40 entrevistas individuales a mujeres usuarias de nuestros grupos de autogestores, dos centros de día, siete residencias, cinco viviendas y del Servicio de Tiempo Libre, en la siguiente fase se crearán grupos de discusión para poner en común las expectativas, objetivos y dinámicas que deberá cumplir el programa de empoderamiento, que se implementará en el año 2017 de cara a proporcionar herramientas a las mujeres para que puedan participar, tomar decisiones, etc.

LECTURA FÁCIL

Estamos trabajando con la Universidad de Deusto para que las mujeres con discapacidad intelectual puedan participar en la sociedad. En este proyecto participan 40 mujeres que usan nuestros servicios.

# Emakumea eta adimen desgaitasunari buruzko azterketa Deustuko Unibertsitatearekin

***Gorabide eta Psikologia eta Hezkuntza Fakultatearen arteko lankidetza hitzarmen baten helburua da ahalduntzea erabiltzea gizartean parte hartzeko estrategia modura***

Gorabide eta Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea ikerketa bat egiten ari gara emakumea eta desgaitasun intelektualari buruz, gizartean parte hartzeko estrategia modura ahalduntzea oinarri hartuta. Proiektuak lau urte inguruko iraupena du eta helburua da ezagutzea nolako egoerak bizi dituen kolektibo horrek, identifikatzea zerk laguntzen edo oztopatzen duen gizarte-inklusioa, eta gaitasuna ematea ahalduntze pertsonalerako eta gizartean parte hartzeko.

Banakako 40 elkarrizketa egin zaizkie emakume-erabiltzaileei, gure autogestoreen artean, eguneko zentroetan, zazpi egoitzetan, bost etxebizitzatan eta Astialdiko Zerbitzuan. Hurrengo fasean eztabaida taldeak sortuko dira elkarrekin erabakitzeko ahalduntze programak bete behar dituen igurikimenak, helburuak eta dinamikak. 2017an ezarriko da, emakumezkoei tresnak emateko parte hartzeko, erabakitzeko, etab.

IRAKURKETA ERRAZA

Deustuko Unibertsitatearekin ari gara lanean adimen desgaitasuna duten emakumeek gizartean parte har dezaten. Gure zerbitzuak erabiltzen dituzten 40 emakume ari dira parte hartzen.

# Tres talleres sobre juegos inclusivos, roles familiares y afectividad-sexualidad

## *Dos actividades para familias y una para personas con discapacidad intelectual centran la oferta formativa de nuestra Área de Intervención Familiar en octubre*

***Patios y Parques Dinámicos. El juego como herramienta de inclusión*** es el título de la sesión, subvencionada por el Ayuntamiento de Bilbao, que se celebrará el sábado 1 de octubre, de 11:00 a 13:00, en el salón de actos de Bolunta, a cargo de Gey Lagar, experta en gestión cultural inclusiva, y profesionales de Gorabide, dirigida a familias, de niños y niñas de 0 a 12 años para que puedan promover su inclusión en el parque, patio escolar, fiestas, etc. a través del juego, y potenciar áreas específicas y actividades funcionales. Esta actividad cuenta con servicio de guardería.

***Los roles en la familia*** es un taller para abuelos y abuelas, hermanos y hermanas y el resto de familiares, en el que se compartirán experiencias y reflexiones sobre los papeles que se asumen en una familia en la que alguien tiene discapacidad intelectual. Tendrá lugar en Bolunta, el jueves 27 y el viernes 28 de octubre, de 18:00 a 20:00, y el sábado 29, de 10:00 a 12:00. Esta actividad dispondrá de servicio de guardería.

***Relaciones afectivas y sexuales*** es el taller para personas con discapacidad intelectual que ofrecerá el psicólogo de Gorabide Javier Bengoa los jueves 13, 20 y 27 de octubre, de 18:00 a 20:00, en la sede de Gorabide.

**Información e inscripciones:**
Diana Cabezas. Tel. 94 443 12 10.
dianacabezas@gorabide.com



# Jolas inklusibo, familia rol eta afektibitate-sexualari buruz hiru tailer urrian

## *Bi jarduera familientzat eta bat adimen desgaitasuna dutenentzat, hori izango da Familian Esku Hartzeko arloaren datorren hilabeteko prestakuntza eskaintza*

***Jolas-leku eta Parke Dinamikoak. Jolasa inklusiorako tresna gisa*** Bilboko Udalak diruz lagundutako saioa antolatu da urriaren 1ean, 11:00etatik 13:00etara, Boluntako Bilera gelan. Hizlariak Gey Lagar, kultura inklusiboaren kudeaketan aditua eta Gorabideko profesionalak izango dira. 0 urtetik 12ra bitarteko umeen familiakoentzat da, jolasaren bidez inklusioa sustatu dezaten parkean, eskolako jolastokian, jaietan, etab., eta arlo espezifikoak eta jarduera funtzionalak sustatu. Jarduera horretan haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

***Familiako rolak*** izeneko tailerra aitita-amama, neba-arreba eta familiako guztientzat da, bertan esperientziak eta hausnarketak partekatuko dira adimen desgaitasuna duenaren familian hartzen diren rolei buruz. Boluntan izango da, urriaren 27an, osteguna; eta 28an, ostirala, 18:00etatik 20:00etara, eta 29an, larunbata, 10:00etatik 12:00etara. Jarduera horretan haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

***Harreman afektiboak eta sexualak*** izeneko tailerra eskainiko du, adimen desgaitasuna dutenentzat, Jabier Bengoa Gorabideko psikologoak urriko ostegunetan,13an, 20an eta 27an, 18:00etatik 20:00etara, Gorabideko egoitzan.

**Informazio eta izen-ematea:**
Diana Cabezas. Tel. 94 443 12 10.
dianacabezas@gorabide.com





# Encuentros de autogestores en Artzentales y Bilbao

En los meses de junio y julio, nuestros grupos de autogestores organizaron dos eventos: el Segundo Encuentro de Autogestores de Gorabide, en Artzentales, y el Cuarto Encuentro Interregional con Plena Inclusión Cantabria.

El tema principal del encuentro organizado por nuestra Residencia Artzentales fue el buen trato hacia las personas con discapacidad intelectual, que sirvió para debatir sobre cómo afrontar situaciones en el trabajo o la residencia, con la pareja, con gente del barrio, etc.

### Encuentro interregional

Por su parte, en el encuentro interregional celebrado en Bilbao con el título *¡Los autogestores contamos!* se trataron fórmulas de participación, como nuestro Programa Goratu, las charlas de autogestores de Plena Inclusión Cantabria en la universidad y la autorepresentación de las personas con grandes necesidades de apoyo en esa asociación.

# Autogestoreen topaketak Artzentalesen eta Bilbon

Ekainean eta uztailean, gure autogestoreek bi ekitaldi antolatu zituzten: Gorabideko Autogestoreen Bigarren Topaketa, Artzentalesen, eta Eskualdeen Arteko Laugarren Topaketa Plena Inclusión Cantabriarekin.

Artzentaleseko egoitzak antolatutako topaketaren gai nagusia izan zen adimen desgaitasuna duten pertsonenganako tratu ona, eta balio izan zuen eztabaidatzeko nola egin aurre zenbait egoerari etxe eta egoitzan edo bikotekidearekin edo auzoko pertsonekin, etab.

### Eskualde Arteko topaketa

Beste aldean, Bilbon *¡Los autogestores contamos!* izeneko eskualdeen arteko topaketan, parte hartzeko formulak tratatu ziren, esaterako, gure Goratu Programa, Plena Inclusión Cantabriako autogestoreen hitzaldiak unibertsitatean eta elkarte horretako premia handiko pertsonen ordezkaritzak.

## LABURRAK
## BREVES

### Día Gorabide

El viernes 16 de septiembre, celebraremos nuestro 54 aniversario, con la presentación de nuestra metodología de planificación centrada en la persona y un acto para sensibilizar a la sociedad sobre la inclusión de las personas con discapacidad intelectual.

### Gorabide Eguna

Irailaren 16an, ostirala, gure 54. urteurrena ospatuko dugu, pertsona ardatz duen gure plangintzarako metodologia aurkeztuko dugu eta desgaitasunen bat duten pertsonen inklusioaz sentsibilizatzeko ekitaldi bat egingo dugu.

### Sorteo de camisetas

BBVA nos ha regalado una camiseta firmada de cada equipo vasco de la Liga 2015-16, que sortearemos entre todas las personas **que sean socias** y que indiquen su nombre, apellidos, número de socio y la camiseta que les gustaría ganar (Athletic, Real o Eibar) llamando al 94 443 12 10 o escribiendo con el asunto ‘Camiseta’ a gorabide@gorabide.com.

### Kamiseten zozketa

BBVAk 2015-16 ligako eusko taldeetako sinatutako kamiseta bana oparitu digu, eta **bazkide diren** guztien artean zozketatuko ditugu. Horretarako, izena, abizenak, bazkide zenbakia eta zein kamiseta (Athletic, Real edo Eibar) irabazi nahi duten esan behar dute 94 443 12 10 telefonora deituta, edo gaian “Kamiseta” jarrita idatzi gorabide@gorabide.com helbidera.

GORABIDE

SEPTIEMBRE DE 2016 | Nº 252 Zk | 2016KO IRAILA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## LA FOTO ARGAZKIA



**Nuestro CAD Txurdinaga cumple 30 años e invita a las personas que han formado parte de ese tiempo a que les hagan una visita para compartir recuerdos y vivencias.**

**Gure Txurdinaga Eguneko Zentroak 30 urte bete ditu eta gonbidapena egiten die denbora horretan parte hartu duteinei, bisita egin diezaieten haien oroitzapenak eta bizipenak partekatzeko.**



# agenda septiembre iraila

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

| Agrupación | Tipo | Lugar | Día / Eguna | Hora / Ordua |
|---|---|---|---|---|
| DEUSTO-SAN IGNACIO | Junta / Batzorde | *Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto* | 6 martes / asteartea | 19:30 |
| ERMUA | Junta / Batzorde | *Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua* | 5 lunes / astelehena | 19:30 |
| MUNGIALDEA | Comisión / Komisio | *Atxurizubi, 12 - Mungia* | 6 martes / asteartea | 20:00 |
| SANTURTZI | Comisión / Komisio | *Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi* | 28 miércoles / asteazkena | 19:00 |

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

| Grupo | Lugar | Día / Eguna | Hora / Ordua |
|---|---|---|---|
| JÓVENES | *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | 13 martes / asteartea | 18:00 |
| LOS NUEVOS | *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | 5 lunes / astelehena | 18:00 |
| LOS ELEGANTES | *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | 7 miércoles / asteazkena | 18:00 |
| LOS VETERANOS | *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | 7 miércoles / asteazkena | 18:00 |
| GURE AHOTSA | *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | 28 miércoles / asteazkena | 18:00 |
| COMISIÓN REDACTORA | *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | 19 lunes / astelehena | 18:00 |




más en...
www.gorabide.com/agenda
...gehiago

JARRAI IEZAGUZU!
¡SÍGUENOS!

D.L./L.G. BI-394-2014